BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4828

EBAZPENA, 2013ko urriaren 11koa, industriako sailburuordearena, 2013ko ekitaldiari dagokionez, nazioartekotze bekak emateko deialdirako baliabide ekonomikoak aldatu direla argitara ematen duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 13ko Aginduaz arautzen da Nazioartekotze Beken Programa (2011ko apirilaren 26ko EHAA).

Aipatu aginduaren 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, Teknologia eta Berrikuntzako sailburuordeak, 2013ko apirilaren 10ean, honako ebazpen hau eman zuen: 2013ko ekitaldiari dagokionez, Nazioartekotze Bekak emateko deialdia argitara ematen duena (2013ko apirilaren 19ko EHAA).

2013ko ekitaldirako deialdiari buruzko aipatu ebazpeneko bigarren puntuan honako hauek ezartzen dira: 3 modalitaterako beken onuradun kopuru maximoa; eta, hirugarren puntuan, baliabide ekonomikoei dagokienez, deitutako bekak finantzatzeko, 2.085.000 euroko aurrekontu-zuzkidura ezartzen da, honelaxe banakatua:

«1.– A modalitatearen balioespen ekonomiko maximoa –2013eko ekitaldiari dagokionez– 120.000 euroko da.

2.– B eta C modalitateetarako (bientzako batera), milioi bat bederatziehun eta hirurogeita bost mila euroko (1.965.000) zuzkidura erabiliko da, honelaxe banakatuta:

– 2013ko ekitaldia: 940.000 euro.

– 2014ko ekitaldia: 450.000 euro.

– 2015eko ekitaldia: 575.000 euro.»

2013ko ekitaldian eskatutako destinoen arabera, programa honetako B eta C modalitateetarako beken, zehazki, 2014ko eta 2015eko ekitaldietarakoen gastuei aurre egiteko, beharrezkoa da 2013ko apirilaren 10eko Ebazpenean aurreikusitako hasierako zenbatekoa egokitzea; eta erreferentziako Aginduan ezarritako ahalmenak baliatuaz, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Teknologia eta Berrikuntzako sailburuordearen 2013ko apirilaren 10eko Ebazpenaz (2013ko apirilaren 19ko EHAA) deitutako nazioartekotzea bekak finantzatzeko baliabide ekonomikoen kopurua aldatzea, eta kopuru hori honako zenbateko honetan finkatzea: bi milioi bostehun eta laurogeita hemeretzi mila zortziehun eurotan (2.599.800), honelaxe banakaturik:

«1.– 2013ko ekitaldiari dagokionez, 120.000 euroko balorazioa du A modalitateak.

2.– B eta C modalitateetarako (bientzako batera) honako zuzkidura erabiliko da: bi milioi laurehun eta hirurogeita hemeretzi mila eta zortziehun euro (2.479.800); honelaxe banakaturik:

– 2013ko ekitaldia: 940.000 euro.

– 2014ko ekitaldia: 706.300 euro.

– 2015eko ekitaldia: 833.500 euro.»

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jar diezaiokete Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 11.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.